


Heri Aldizkaria

# Otamotz

1999ko maiatza 47. alea



ENHATZITAKOEN  
ZINTZU  
MINTZU  
ELHARTZA

Joseba Apaolaza protagonista

# Eitzako dendari eta tabernariok San Isidro jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

A  
P  
A  
I  
N  
D  
E  
G  
I  
A

ILEAPAINDEGIA

*Itxura*

Busca Sagastizabal, 1 behea  
☎ 943 72 58 19 ZUMARRAGA



**BORDATXO  
TABERNA**

**AMAIER**

LENTZERIA  
OSAGARRIAK

TABERNA

**TXOMIN  
ENEAA**

ERRETEGIA

\*Festak ondoren taberna itxi  
eta tresneria salgai jarriko  
dugu.  
☎ 943 72 25 82 / 72 17 19

**MENDIZABAL  
HARATEGIA**

☎ 943 72 55 75

**EITZA**

KAFETEGIA  
TXIBIARROETAN  
ESPEZIALITATEA

☎ 943 72 35 57

**GALVEZ**

JANARIDENDA  
GARRAIOAK

☎ 943 72 12 22

*korta*

**TABERNA**

**JULENE**

JANARIDENDA

San Gregorio, 25  
EITZA



1975. urtean Eitzako jaietan ateratako argazkia dugu oraingoan ikusgai. Orduan ere, jendearen partaidetza nabarmena zen eta auzokoek euren arteko sokatira lehiaketa antolatu zuten.

Argazkian: makurturik eta bere taldeari animoak emanez, "Zapa"; udaltzaina, Rubial; eta sokatiran lehenengo lau postuetan jo eta ke Vicente Garmendia, Vicente Uli, Andrés De la Calle eta Aranzadi.



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.  
**Tel:**943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.  
**Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318  
**Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



*Mutua General de Seguros*

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

## MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erroren konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan

## BAIMENDUTAKO



Pepe Jeans  
LONDON



SALTOKIA DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA



## HARGOR

Ileapaindegi mistoa  
Nekolalde-3, URRETXU  
☎ 943 72 44 42

## HARGOR

Artisautza Nekolalde, 5  
Arropak Urretxu  
Opariak ☎ 943 72 56 58



## BAPRI

ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13  
ZUMARRAGA



KABIA  
JATETXEA

Legazpi, 5  
☎943 726274  
ZUMARRAGA



# EITZAKO JAIAK 99

## Maiatzak 8, larunbata

**Arratsaldeko 4:00etan:** XXI. mus txapelketa.

## Maiatzak 14, ostirala

**Arratsaldeko 6:30etan:** buruhaundiak eta umejolasak Eitzako astialdiko taldeak antolatuta.

**Arratsaldeko 7:30etan:** Poteoa Zumarragako Trikitixa soinua jotzen dela. Ordu berean: Gorriti eta bere abereak.

**Iluntzeko 9:30etan:** kaldereta herrikoia.

**Gaueko 11etan:** Marrubi Sound taldearen eskutik Rock kontzertua.

**Gauerdian:** gure auzoko kaleak Aldapa txarangak alaituko ditu.

## Maiatzak 15, larunbata

**SAN ISIDRO EGUNA**

**Goizeko 11etan:** San Gregorioko elizan auzoko zaindaria den San Isidoren ome-nezko meza.

Ondoren: Irrika ellkarteak antolatuta, auzoko jubilatuentzako hamaiketako.

**Eguerdiko 12:00etan:** XIX. Toka txapelketa.

**Eguerdiko 1:00etan:** Zaldua Anaiak soinua jotzen kalejiran.

**Arratsaldeko 4:30etan:** XVII. kross herrikoia.

**Arratsaldeko 6:30etan:** Behi Bi's taldeak "Potetik potera, jarraitu aurrera" lana antzeztuko du. (Sasieta mankomunitateak antolatuta).

**Arratsaldeko 7:30etan:** Zaldua Anaiak soinua jotzen kalejiran.

**Gaueko 11:00etan:** Dantzaldia Kiñu Taldea soinua jotzen dela.

**Gaueko 12:00etatik aurrera:** Txaranga bat ibiliko da auzoko kaleetan zehar soinua jotzen.

## Maiatzak 16, igandea

**Goizeko 10:00etan:** Antzinako Ama Txistulari taldeak jotako goiz eresia. Aldi berean, Zuhaitzaren soinua txalapartaren ttakun-ttakun gozoak entzungo dira.

**Eguerdiko 11:30etan:** San Gregorioko elizan Meza Nagusia.

**Eguerdiko 12:30etan:** Zumarragako Musika Bandaren kalejira.

**Eguerdiko 1etan:** Irrintzi dantza taldearen emanaldia.

**Eguerdiko 1etatik 2:30etara:** Zaldua Anaiak soinua jotzen kalejiran eta Zumarraga eta Urretxuko Bertso Eskolako gazteen bertso saioa.

**Arratsaldeko 5:00etan:** Albero abesbatzaren saioa.

**Arratsaldeko 6:30etan:** Herri kirolen erakusketa.

**Arratsaldeko 7:00etan:** Antzerkia.

**Iluntzeko 8:00etan:** Zaldua Anaiak soinua jotzen kalejiran.

**Gaueko 10etan:** Aires Navarros taldeak abestuta, Nafarroako jotak eta Eitzako aurtengo jaietako bukaera ematea.

# MAIATZAKO AGENDA

## Maiatzaren 9ra bitartean

Iñaki Mariñelarenaren pintura eta eskultura erakusketa Juan de Lizarazu erakusgelan.

## Maiatzak 6, osteguna

Secundino Esnaola Musika Eskolaren kontzertua Legazpi Dorretxean 6:30etan.

## Maiatzak 7, ostirala

Eguerdiko 1:30etan: Liburu azokaren inaugurazioa. Maiatzaren 16ra bitartean zabalik.

Antonio Pradaren Zumarragako Elizaren Historiari buruzko ikerketa liburuaren aurkezpena arratsaldeko 7:30etan Legazpi dorretxean.

Benito Lertxundiren kontzertua Ederrena pilotalekuan gaueko 10etna. Sarrerak: alde zurretik 1000 pza (salgai Urretxuko Kultur Etxean), takilan 1200.

## Maiatzak 8, larunbata

Goizeko 11:30etatik eguerdiko 1:30ak arte: Haurrentzako jolasak eta hauek girotzeko Secundino Esnaola Musika

Ikastetxeko trikitilariak. Liburu azokan. Arratsaldeko 6etan: Behi Bi's antzerki taldearen emanaldia liburu azokan. Irrintzi dantza taldearen jaialdia Beloki pilotalekuan arratsaldeko 7:30etan.

## Maiatzak 9, igandea

Goizean, Zumarragako txistulari taldearen kontzertua.

Arratsaldeko 7:30etan: Ederne Iturbe eta Andoni Elortza trikitilarien emanaldia liburu azokan.

## Maiatzak 13, osteguna

"La ruta de Samarkanda" ren proiektzioa Zelai Arizti Ikastetxeko ekintza aretoan arratsaldeko 8etan.

## Maiatzak 15, larunbata

Goizeko 11:30etatik 1:30ak arte haurrentzako jolasak eta hauek girotzeko Secundino Esnaola Musika Ikastetxeko trikitilariak liburu azokan.

Arratsaldeko 7:30etan: Secundino Esnaola Musika Ikastetxeko trikitilari eta panderujoleen kontzertua liburu azokan.

## Maiatzak 16, igandea

Iñaki Beitiaren omenezko iraupen luzeko III. mendi ibilaldia. Informazioa: Aldiri kiroldegian eta Ostadar mendi elkartean. Goizean, Urretxuko txistulari elkartearen kontzertua.

Arratsaldeko 7:30etan: Euskal Abestien kontzertua, Iparraldeko Ziburutarrak eta Urretxu-Zumarragako Ostebi taldeen eskutik liburu azokan.

## Maiatzak 21, ostirala

Ikastolako haurrek berrerabilitako materialerik eginiko eskulanen erakusketa. Itarte etxean.

## Maiatzak 24, astelehena

Hilak 28ra bitartean VII. kontzertu zikloa Legazpi dorretxean.

## Maiatzak 26, asteazkena

Mairi emakume elkartearen urteko kultur txangoa: Covarrubias-Sto. Domingo de Silos-Burgos. Irteera: Goizeko 8:00etan Goierriko plazan. Prezioa: bazkideak, 4.500pza, besteak 5.000pza.


# TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA



*Zer moduz igaro zenituzten Aste Santuko oporrak? Ziur orain eskolan baino gusturago ibili zinetela, baina zer egingo zaio bada! Eskerrak udako oporretarako bi hilabete baino gutxiago gelditzen diren. Ordura arte gogor ikasten saiatu behar!*

*Hilabete honetako Txikimotzi dagokionez, Gipuzkoako infantil mailako atletismo txapelketan dominak lortu dituzten Ikastolako 3 neska mutilekin hitz egin dugu. Zorionak eta segi aurrera!*



TXIKIMOTZ

# ATLETISMOA

## 99-3-27 (BIGARREN JARDUNALDIA)

### PISU JAURTIKETA (3 KG.) INF. NESKAK

1.	Arantza Arrospide	Ikastola A	7,30
2.	Saioa Pinadero	Haztegi B	5,74
3.	Josune Madrigal	Haztegi A	5,60
4.	Mirian Nieto	Olazabal A	4,70
5.	Sara Gutierrez	La Salle	4,38
6.	Maitane Gabiria	Ikastola B	3,60

### ALTUERA SALTUA, INFANTIL NESKAK

1.	Goretti Kerejeta	Ikastola B	110
2.	V. Hernandez	Olazabal A	110
3.	Izaro Angulo	Ikastola A	105
4.	Sandra Carpio	La Salle	105
5.	Ainhoa Rodriguez	Haztegia A	100

### LUZERA SALTUA, INFANTIL NESKAK

1.	Ainara Pérez	Olazabal A	3,54
2.	Marian Rubio	La Salle	3,41
3.	Paloma Quintana	Ikastola B	3,20
4.	Idoia Kerejeta	Haztegi A	3,05
5.	Amaia Aseginolaza	Haztegi B	2,84

### 80M. INFANTIL NESKAK

1.	Leticia Vivas	La Salle	12,40
2.	Enma Lozano	Olazabal A	12,47
3.	Ane Rodriguez	Ikastola A	12,70
4.	Laura Juez	Haztegi A	12,72
5.	Eli L. de Munain	Ikastola B	15,20

### 4X80M. INFANTIL NESKAK

1.	Quintana-Esnal	Ikastola B	50.82
	Oiartzabal-Kerejeta		
2.	Gutierrez-L. Vivas	La Salle	51.08
	Segovia-N. Vivas		
3.	Pérez-Murua	Ikastola A	51.21
	Urrate-Azkona		
4.	Jaka-Juez	Haztegi A	52.34
	Mate-Zaldua		
5.	Aseginolaza-Arando	Haztegi B	53.63
	Alkaide-Otegi		
6.	Nieto-Pérez	Olazabal A	54.90
	Enrique-Lozano		

### NESKEN TALDEKAKO SAILKAPENA

1.	Ikastola B	148p
2.	Olazabal	144p
3.	La Salle	144p
4.	Haztegi A	144p
5.	Ikastola A	136p
6.	Haztegi B	107p
7.	Haztegi C	76p
8.	Iparragirre	58p

## 80 M. INFANTIL MUTILAK

1.	Xabier Pérez	Haztegi C	11.09
2.	Xabier Castaño	Olazabal B	11.15
3.	Xiker Aiertza	Ikastola A	11.93
4.	Iñaki Ruiz	La Salle	12.00
5.	Ruben Díez	Olazabal A	12.32
6.	Urko Odria	Haztegi B	12.64
7.	Jon Antzizar	Ikastola B	12.72

## PISU JAURTIKETA 4KG. INFANTIL MUTILAK

1.	Borja Aguado	Olazabal B	8,00
2.	Mikel Murua	Haztegi C	7,75
3.	Iker Romero	La Salle	7,20
4.	Aritz Berasategi	Iparragirre A	6,20
5.	Iker Maiz	Haztegi B	6,12
6.	Jorge Moro	Olazabal A	6,10
7.	Joseba Iturbe	Ikastola A	6,00
8.	Ibon Badiola	Ikastola B	5,05

## LUZERA SALTUA, INFANTIL MUTILAK

1.	J. Mikel San Millan	Haztegi C	4,36
2.	Erik Gálvez	Olazabal B	4,28
3.	Joseba Alberdi	Ikastola B	3,77
4.	Alvaro Rodríguez	Olazabal A	3,70
5.	Ladis Santamaría	La Salle	3,49
6.	Ekain Hernández	Haztegi B	3,46
7.	Imanol Segurola	Ikastola A	2,78
8.	Asier Bergara	Iparragirre A	2,71

## 4X80 INFANTIL MUTILAK

1.	Castaño-Arizti	Olazabal B	43.53
	Casado-Castaño		
2.	Peláez-San Millan	Haztegi C	43.70
	Pérez-Olaizola		
3.	Odria-Beiztegi	Haztegi B	48.06
	Maiz-Mujika		
4.	Alberdi-González	Ikastola A	48.37
	Zufiria-Aiertza		
5.	Santos-Calvo	Olazabal A	49.73
	Moro-Díez		
6.	Santamaría-Blanco	La Salle	50.22
	Ruiz de E.-Agirre		
7.	-----	Iparragirre A	52.72
8.	Antzizar-Alberdi	Ikastola B	52.85
	Berriotxoa-Fernández		

## ALTUERA SALTUA, INFANTIL MUTILAK

1.	Jon Arizti	Olazabal B	140
2.	Mikel González	Ikastola A	140
3.	Aitor Agirrezabal	La Salle	135
4.	Beñat Olaizola	Haztegi C	130
5.	Imanol Moro	Olazabal A	130
6.	Eneko Garro	Iparragirre A	130
7.	Mikel Castrillo	Haztegi B	130
8.	Iñaki Berriotxoa	Ikastola B	120

## MUTILEN TALDEKAKO SAILKAPENA

1.	Olazabal B	165p
2.	Haztegi C	163p
3.	Ikastola A	141p
4.	Olazabal A	137p
5.	Ikastola B	132p
6.	Haztegi B	128p
7.	La Salle	115p
8.	Iparragirre A	114p
9.	Iparragirre B	42p


# GIPUZKOAKO ATLETISMO TXAPELDUNAK

Ainhoa Urretabizkaia, Julen Verde eta Jon Plazaola D.B.H. ko bigarren maila ikasten ari diren ikastolako hiru neska-mutil dira. Apirilaren 17an infantil mailako Gipuzkoako atletismo txapelketan urrezko dominak lortu zituzten. Julen eta Ainhoak 80 metro hesietan eta Jonek 80 metro lauetan. Eskola kirolean kirol ezberdinetan aritu ondoren, atletismorako erraztasuna nabaritu zuten eta emaitzak berehala lortu dituzte. Ainhoa eta Julenek oraindik ere eskola kiroleko gainontzeko kirolean ere parte hartzen dute.

Euren entrenatzailea Mikel Cristobal da eta Jonek lasterketen irteera lantzen du gehienbat; Julen eta Ainhoak,

berriaz, hesiak gainditzeko teknika lantzen dute batik-bat. Ordiziara Gipuzkoako txapelketan parte hartzera joan zirenean, ez omen zuten urrezko domina lortzea espero. Lasterketa hasi aurretik inpresio handia izan omen zuten jendearen beroketa ariketak ikusi zituztenean.

Larunbata honetan Jon eta Julenek taldekako Gipuzkoako txapelketan parte hartu behar dute. Ainhoaren taldea ez da sailkatu. Maiatzaren 29an, berriaz, Euskadiko txapelketan parte hartuko dute hirurek. Gurasoak oso pozik dituzte eta aurrera jarraitzera animatzen dituzte. Zorionak eta ea Euskadiko txapelketan ere dominak herrira ekartzen dituzuen!




**Jon Plazaola**

-Aurten hasi naiz atletismoan. Lehenago 3 urte eman ditut eskola kiroleko kirol guztietan parte hartzen.

- Taldea: Goierri Garaia.
- Gustuko kirolaria: Ben Johnson.
- Musika: Denetik.
- Gustuko filmea: Braveheart.
- Gustuko irakasgaia: Informatika.
- Gustuko TB saioa: El Informal.
- Janaria: Makarroiak.

## Julen Verde


- Bi urte daramatzat atletismoan.
- Taldea: Goierri Garaia.
- Gustuko kirolaria: Krossekoak atsegin ditut batipat eta hauen artean John Brown bereziki.



- Musika: Denetik.
- Gustuko filmea: Braveheart.
- Gustuko irakasgaia: Informatika.
- Gustuko TB saioa: El Informal.
- Janaria: arroza kubatar erara eta solomilloa.

## Ainhoa Urretabizkaia

- Iaz hasi nintzen atletismoan. 5 urte daramatzat eskola kiroleko kirol ezberdinetan parte hartzen.
- Taldea: Ikastolakoa.
- Gustuko kirolaria: Erreala atsegin dut eta jokalaria guztiak dira onak.
- Musika: denetik.
- Gustuko filmea: El hombre que susurraba a los caballos.
- Gustuko irakasgaia: Informatika.
- Gustuko TB saioa: Goenkale.
- Janaria: denetik, espinakak izan ezik.



HERRITARREN EMAITZAK GIPUZKOAKO ATLETISMO TXAPELKETAN				
80m hesiak	Ainhoa Urretabizkaia	1.	13.84	Urrezko domina
	Julen Verde	1.	14.91	Urrezko domina
	Josu Barquero	6.	16.84	
80m	Jon Plazaola	1.	9.96	Urrezko domina
Altuera saltua	Mikel González	4.	1,35	
Pisu jaurtiketa	Ane Agirre	5.	7,82	
600m	Peio Alberdi	6.	1.52	





**Aitor**, piragua berrian ziztu bizian jaisten omen dituzu ibaiak, baina ur gainetik ala ur azpitik? **Zorionak** familiarren partez!



**Ane** mila durokoa aurkitu al duzu? Harrapatu zaitugunez gonbidatu egin beharko gaituz! **Zorionak** familiarren eta lagunren partez.



**David** zertan habil alproja aurpegi horrekin? Oraingoan ere bihurrikeriaren bat prest izango duk. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



**Eukene**, zer moduz Alemania aldean? Oporretara joan eta senarra aurkitzea ere! Orain senarrak badaezpada ere ez du Cambrilsera itzuli nahiko.



**Jone**, zu zara argazki kamerara zintzo eta seriotasunez begira aurkitu dugun lehengoa. Eskerrikasko eta **Zorionak**.



**Anaia** bikieren kontua asmatu al duk opariak birritan jasotzeko? **Zorionak Robertto!** (Ama gustura izango duzue baten prezioan bi izanda!).



**Julen**, zer gertatzen zaizu hain serio egoteko? Lasai motel aurrerantzean hainbeste oparirekin aurpegia alaitzeko aukera izango duzu eta!



**Mari Karmen**, seme-alabak jada zoriondu ditugu eta senarra baka-rik geratzen zaigu. Berari ere aurki helduko zaio! **Zorionak!**



**Maria Jesus**, zer moduz Saltsamendi aldean? Ea egunen batean zuen gazta goxo bat dastatzeko aukera dugun! **Zorionak!**



**Martin** bihurri xamarra omen zara, ea aurrerantzean pixka bat formalago aritzen zaren! **Zorionak** eta ondo pasa familiarren partez.



Esan digutenez aurki Luis Moya berria izan behar omen zara. Orduan ere hain irrifartsu aritu behar al duzu? **Zorionak Miren!**



**Bitoriano**, Bitoriano... ez al hiñtzen ba Saltsamendikoa? Ez zegok gaizki emaztearen hilabete berean urteak betetzea (merkeagoa behintzat bai). **Zorionak!**



**Nerea** guri ere hain pozik utzi zaituen txiste hori kontatu beharko diguzu. Horretarako askari batera gonbidatzen bagaituzu hobe. **Zorionak!**



**Beti** bezain irrifartsu! Betaurreko interesante horiekin eta hainbeste parranda ondoren... Noizko dugu neska hori? Bada garaia!! **Zorionak Unai!**



**Gurasoak** zezeketen zaleak al dituzu? **Zorionak Veronica** lagunren partez. (Merienda batera gonbidatzen bagaituzu ez diogu muzin egingo).



**Argazkiak** gustuko ez badituzu ere, ez ezazu ezjakinarena egin behintzat! **Zorionak Olatz** eta ondo pasa urtebetetze egunean.



**Motel**, motel... ahoa bete goxoki duzula dirudi! Ea hurrengoan beste-ontzat ere gordezten dituzun! **Zorionak Jon** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



**Garazi**, zer egin duzu ilea hain tente izateko? Geroz eta lehena-go hartzen dute egungo gazteek punk itxura! **Zorionak** familiarren izenean.



Gustura dugu aitona bere bilobekin! Ziur ez diela sekula euren eskaerei ezetzik emango. **Zorionak Pablo** eta **Venancio** eta ondo pasa ezazue urtebetetze eguna familiarren izenean.



**Hori** duk eta **Iban**, ez hiek irriparre bat eskeini eskatzen diaten bakoitzean, bestela gogaituko haute eta! **Zorionak** eta irrifarrea oparien truke eskeini!



**Aitor** zer moduz txinatarrekin? Zuk ere aurki jateke bat ireki behar omen duzu. **Zorionak** eta urtebetetzean bertako janaria prestatu mesedez.



Ea aurtan danborradako entsaiuetan zarata pixka bat gutxiago ateratzen duzen, ez baitiezue bizilagunei lasai ikasten uzten eta! **Zorionak Kakun!**



**Zurea** lehenengoa, ez! Baina 30a laster iritsiko da eta hiru urte beteko dituzu. Ordiziako lehen-gusu eta osabaziezen partetik. **Zorionak Ander!**



**Maria** ez gero guri aurpegi horrekin begiratu, Badakigu gustura asko atera zarela Otamotzen eta! **Zorionak** familiarren eta lagunren partetik.



Non habil **Jokin**? Ondo zegok intelektual betaurrekoak jarri eta jo eta su ikasten aritzea, baina noizean behin herrira itzuli beharra zegok. **Zorionak!**



**Ibai**, bihurri eta despistatu xamarra izango zaren ustea du. Eskolan behar adina arreta jartzen al duzu? **Zorionak!**

**BIONA**  
**AROTEGIA**  
**Altzariak neurria**  
 ☎ eta faxa: 72 02 55  
 Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:  
 En la edición de esta publicación colabora:  
**#kutxa fundazioa**  
**fundación**

**EDURNE**  
**JANTZIDENDA**  
 Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

**Lanbiza**  
 - Dietetika  
 - Estetika  
 Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

**Keros**  
**Enmarkatzeak**  
 Arte ederrak  
 Dekorazioa  
 Opariak  
 Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

# Zer eskatuko zenioke




Nerea Soraluze

Baserritar gaztea naizen ikuspuntutik, hauteskunderi begira alkateari proiektu bat aurrera eramateko laguntza gehiago eskatuko nioke. Hau da, gure proiektuak duen puntu bat udalak onartzen ez

badu, beste alternatiba posible bat eskeini beharko luke.

Beste alde batetik, oso ondo iruditzen zait industria aurrera eramatea, baina ez herriak duen lursail onetsuenak kendu behar izatea horretarako.

Udalak baserritarrei obraren bat egiteko garaian zergak kentzea ondo iruditzen zait, bestela ez bailirateke baserri asko konponduko eta erortzeko zorian egongo lirateke.




Iker Antia

## Judas Iskarioterena?

Boris Vianen "El otoño en Pekín" nobelako pertsonai batek zera dio: "Aipatutako pertsonalitate ospetsuok hain zehatz eta sakonki landu dituzte pensamenduaren forma eta egiturak, zeinen egitura hauek pentsamendua bera mozorrotzen dute. (...) Pentsamenduaren iturri fisiko soila, erreflexuzkoa, taxu emozional eta sentsoriala, dispositibo mekaniko trebe askorekin aberastu duten forma garbiarekin nahastu nahi dute, ondorioz osotasunean huts eginez."

XX. gizaldi honen bukaeran aurrerapen zientifikoak eta komunikabideek eskain-tzen diguten kontsumo kulturalerako material infinito honek iadanik irentsi dituzte eta ideologi masibo eta generalizatuak. Erdi Aroko Harri Filosofala desagertu egin da, benetako egia bakarra hil da edo hobeki esanda bakoitzak bere egia du. Beraz, galdera berdinentzat erantzun ezberdinak badiugu eta askotan erantzun hauek guztiz kontrajarriak direla konturatzen bagara (adibidez Umberto Eco, kultura bangoardista hartzen ari den bideari begira, artistak, apokaliptiko eta integratuetan banatzen ditu), gizaki bakoitzak bere "gezurra" bizi duela onartu dezakegu.

"Gezurra hitza ez dut despektiboki



Geure eskaera nagusia egoitza handitzea da. Izan ere, urtetik urtera bazkide kopurua gorantz doa eta egoitzak lehenagoan dirau. Egun 1600 bazkide inguru gara eta jende asko erakartzen duten ekintzak antolatzen ditugunean jendea eskilaretan pilatzen da.

Urtebete inguruko epean azken solairua gure esku uztea eskatuko genuke

eta epe luzeagoan etxebizitza osoa. Haseran etxe honetako gela guztiak gure esku zeuden eta egun 3. solairuan udal bulegoak daude eta laugarrenean txistulari taldearen eta udal bandaren egoitzak. Itarte Etxeko goi solairuetan udalaren bulegoak kokatzeko asmoa omen dute eta orain hutsik dagoen Zelai-Arizti ikastetxean kultur talde ezberdinen egoitzak kokatu daitezke.

Beste eskaera bat Bidegorriarekin lotua dago: ea lehenbailehen txukuntzen duten eta bere erabilera arautu. Izan ere, askotan gazteak ziztu bizian ibiltzen dira bizikletan oinez goazenok arriskutan jarriz.



Oraingoz Gazteleku berriaren eraikitze lanetan Urretxuko udalarekin ez dugu arazorik izan, baina gure ustez elkarren arteko komunikazioa hobetu beharra dago. Gaztelekua botatzeko orduan gure-

kin harremanak izan zituzten udalekoek, harreman ona izatea komeni baitzitzaie. Baina Gaztelekuko obrak geldirik egon diren hainbat momentutan ez dute aurrera ateratzeko batere interesik erakutsi.

Bestalde, argi dago Gazteleku zaharra bota zenetik gazteentzako ekintzarik ez dagoela. Udalak ere proposamenak eta eskeintzak izatea nahi genuke eta gugarra jo dezatela hauekin. Ez gaitzela beti gu izan proposamenak ditugun bakarrak. Zumarragako udalari gure eskaerak kontuan hartzea eskatu nahi diogu.



Gure sektoreari arreta gehiago jartzea eskatuko genieke gure bi udalei, ez dirua eskatzerako orduan bakarrik. Gugar eragina izan behar duten hirigintza aldaketak egitean gu kontutan izatea eta herriko merkataritza bultzatzea nahi genuke.

Horretarako bi neurri hartu behar dira: alde batetik merkatariorik ditugun beharrei erantzuna eman behar zaie eta lokal berriak eraikitzen diren bakoitzean aparkaleku berriak jarri. Bestetik, herriaren beraren aldeko sustapena ere egin behar da, hau denon onurarako baita. Herrian ekintzak antolatu behar dira eta zinema zabaltzea ere oso onuragarria izango da. Honela herriko jendeak bere aisialdirako denbora bertan igaroko du eta inguruko herrietatik jendea erakartzea ere lortuko da.



Egia esan eta zoritxarrez gure elkar-teak eskaera asko ditu oraindik. Hauen artean sartzen dira guri buruzko informazioa zabal-tzea eta jarrera integratzaileak sustatzea, oztopo fisiko, sozial, ekonomiko, hezkuntzako eta psikologikoak gainditu daitezten. Gure artean langabezi tasa are eta altua goa da eta gure nahia lan sistema arruntean aritzea da eta legeak bermatzen gaituela esan beharra dugu. Hala ere, egungo joerak lantegietan gu integratzera jo beharrean guretzako lantegi bereziak sortzera jotzen du.

Udaletxea arazo guzti hauei erant-

# e Udaletxe berriari?

erabiltzen, baizik eta gizartean benetan gertatzen ari den zerbait deskribatzeko. Honela, aurreko esaldi honekin, neure hitzak kontrasesanean jartzen ditut edo neure "gezurra" agerian utziz, guztiz koherentea naiz. Anbiguetate honetara iritsi nahi nuen Eduardo Subiratsen "El final de las vanguardias" en bangoardiei buruz egiten dituen bost tesietako baten gakoa azaltzeko:

*"Primera tesis: un concepto ambiguo*

*Uno y el mismo nombre arropa bajo sus connotaciones a la vez estéticas y sociales la esperanza de una regeneración de la sociedad industrial y la expresión de su decadencia, la voluntad decidida y radical de una crítica social, y la obediencia a las instancias de poder político y administración cultural."*

Honela, kultura munduari bi irtenbide gelditzen zaizkio, medios de masas-en bitartez komertzializatu (komertzializatu hitzak ez du zentzu despektiborik) edo botere politiko eta administrazio kulturalak ematen dizikion laguntzen bidez jarraitu. Puntu honetara iritsita, hauxe da nik eskatu nahi diodana datorren kultura batzordeari: bere herritik iristen zaizkion proposamenak babestu eta sortu daitezkeen oztopoak gainditzen lagun-tzea besterik ez.

Kultura munduan dagoen hirugarren bidea (Prometeo eta Ulisesena) aukeratu dutenei nire estima eta laguntasuna luzatuz,

agur.

zuna ematen saiatu beharko litzateke. Dena den, eskaera nagusia gure bi herriak, guztiontzat iriskorrak izan daitezen, egokitzea da. Oztopo fisikoak guretzat eta gure ingurukoentzat gain; istripuak izan dituztenentzat, gaixoen-tzat, zaharrentzat, zamak eraman behar dituztenentzat... ere arazo larria dira.

Iriskortasunaren sustapenerako legea 1998ko apirilaren 24tik indarrean dagoen arren, gure udalek ez dute errespetatzen. Lege honek ordutik hona eginitako eraikuntza berri guztiak (publiko zein pribatuak) iriskortasuna bermatzen du, baina gure udalek ez dute lege hau errespetatzen beraiek eginitako hirigintza lanetan. Ezta herrian egiten diren ekimen pribatuko lanetan errespetatzen ere. Gure eskaerei sekula ezezkoa ematen ez dieten arren, eguneroko lanean ez dituzte kontutan izaten.

Neska gazteak eta emakumeon arazoekin sentsibilizatuak garen heinean, gure ustez udalak emakumeen beharrei aurre egiteko zenbait ekimen aurrera atera behar ditu. Hasteko emakumeon arazoei aurre egingo dien asistentzia psikologikoa, ginekologikoa eta sexologikoa eskeiniko duen "familia plangintzarako zentrua" beharrezkoa ikusten dugu. Honen barne gazteen heziketara zuzendutako informa-

zio-orientazio sexualari buruzko bulegoa oso garrantzitsua ikusten dugu. Horretaz gain, kontuan izan behar da, emakumeok dugun langabe kopurua altua dela eta, diskriminazio positiboa bultzatu beharra dagoela. Zentru honetako langile-asistentiak emakumeak izango liratekeenez emakumeengan bereziki larria den langabezi arazoa arintzen hasteko ekimen polita litzateke.




Guregana datorren jendeak behar ezberdinak izaten ditu eta guk beraiekin hitz egin eta euren egoera egiaztatu ondoren, laguntza eskeintzen diegu. Udalak guregana etortzen direnek ematen dizkiguten datuak egiazkoak diren ziurtatzen digu eta honela laguntzaren banaketa era egokian antola dezakegu. Laguntza ekonomikoa, erropa, haurrei botikako esnea eta sendagaiak... eskeintzen dizkiegu.

Azkenaldi honetan ijitu asko

etortzen ari da Urretxu eta Zumarragara. Izan ere, hemen merke alokatu daitezkeen etxe zahar asko baitaude. Hauekin lan egiteko konbenio bat sinatu dugu udalarekin. Orain ijitu emakumeentzat sukaldaritza ikastaro bat antolatu dugu, bide batez euren izaera eta egoera gehiago ezagutzeko aukera eskeiniko diguna.

Gure ustez udaletxea lan ona egiten ari da arlo honetan, nahiz eta beti dagoen hobetzerik. Orain asistentia bat hartu du gutxiengoekin lan egiteko. Gure eskaera orainarte udalarekin izan dugun harremanarekin jarraitzea eta elkarlana bultzatzea litzateke. Lan garrantzitsua egiten ari da, baina oraindik asko geratzen da egiteke.



Lehenik eta behin euskara ez dadila soilik izan beraien beste gaitako bat, baizik eta eguneroko beren jardunean gutxienez erdararen pareko lan tresna. Hau da, euskara normaltasun osoz erabili dezatela eta ondorioz beste herritarrei

erabiltzen lagun diezaietela. Bestalde, udalaren euskara batzordearen funtzio eta helburuak beste edozein udal batzorde ere izatea, euskara ez dadila izan batzorde bakarraren ardura. Guzti honek udalak euskara irizide amankomun batzuk edukitzea ekarriko luke.

Azkenik, edozein herritarrek nahiko lukeen bezala, gure herriaren onerako duten borondate onenarekin lan egitea eskatuko genieke; ziru gaude hala izango dela.



Mikel Cristobal

Kirol arloan nere ustez garrantzitsuen Aldiri Kiroldegia berritzea da, 16 urte baititu eta egunero jende askok erabiltzen baitu. Honetaz gain, kanpoko kirol ins-

talazioak ere ondo konpondu beharko litzateke. Etxeberritik Agiñako bide gurutzearaino doan bidegorriak bereziki, konponketa premia larria du eta argizatzea ere beharrezkoa da, egunero jende askok erabiltzen baitu. Bestalde, Urretxuko kirol instalazio guztiak funtzionamendu plan berdinarekin eramatea beharrezkoa da eta horretarako Urretxuko Kirol Zerbitzua sor daiteke.

# Antón Arbuluk politika utziko du udal legegintzaldi honen ondoren

Antón Arbulu sozialistak alkate-tzan lau urte eman ondoren, ekaineko hauteskundeetara ez aurkeztea erabaki du. Sevillan ikasten ari zela estatuko alderdi sozialistako zenbait kide ezagutu eta alderdian sartu zen. 77an frankismoaren ondorengo lehen Batzar Orokorren sorreran parte hartu zuen Arrasaten. Hirigintza diputatu eta zinegotzi ere izan da Zumarragako udaletxean. Alkate lana amaitzear duelarik, berarekin hitz egin dugu azken lau urte hauetako balorapena egiteko.

**-Nola baloratuko zenituzke alkatetzan egon zaren lau urte hauek?**

Urte hauek oso garrantzitsuak izan dira Zumarragarentzat. Korporatiboek jarrera paregabea izan dute lau urte hauetan eta alkatea zein gobernu batzordea herriarentzat lanean ondo aritu garela uste dut. Herria asko hobetu dela esango nuke: UGLEk bailara honetako gazteen etorkizuna definitu behar du eta bestalde, beste gauza oso garrantzitsu batzuk egin dira: etxe publikoen eskeintzak gora egin dute, 525 etxebizitza egin baitira; saneamendu plangintza garatu dugu eta Urola ibaia berreskuratu behar dugu; RENFEko lubakia egin da eta herriko etxeetako fatxaden itxura hobetu da. Zumarragak lau urte hauetan bere kanpo simbologia aldatu duen arren, barnean berdin dirau: herri plurala eta irekia da.

**-Zertan bereizten da azken hau aurreko legegintzaldiarekin alderatuz?**

Udaletxea egoera ekonomiko oso larrian jaso genuen, Gipuzkoa osoan zorrik handiena zuena baitzen. Baina hau errealitate hutsa da eta ez iraganeko lanari egindako kritika. Errealitate hau ikusirik, saneamendu ikerketa bat egin eta %27ko zorra izatetik %13,95eko zorra izatera pasatu gara. Aurretik beste lau urte ditugu 2003an hasiko den legegintzaldiak garapen garrantzitsua burutzeko ahalmena izan dezan lan egiteko. UGLEn gazteek presta-



Antón Arbulu Zumarragako udaletxeko balkoian.

keta jaso eta gero Zumarragan industria sortzeaz arduratu beharko dira. Honek zolu industrialia prestatzera behartzen gaitu eta jada industria aldearen 3. fasean gaude, pabiloientzat 13.000 metro karratu prestatu behar dira. Bestalde, azken lau urteetako elkarbizitza oso lasaia izan da, bai udaletxe bai kale mailan.

**-HB udaletik bidali izanak elkarbizitza lasai hau ez al zuen apurtu?**

HBk Zumarragako udalaren funtzionamenduan kolaboratu du eta eskertzekoa da elkarbizitzaren eta herriaren alde egin duten lana. Beraien postura eskertzekoa da, euren kontzientzia politikoarekin bat etorri baita.

**“Altzairu lantegiek eta kooperatibek lehiakorrak direla erakutsi dute eta garraiobide egokiak merezi dituzte”.**

**-Zeintzuk dira herriaren egungo egoeraren alderik baikorrenak eta ezkorrenak?**

Egun herrian gai garrantzitsuak jokoan ditugu: eskola profesionala eta zolu industrialia. Arazo nagusia azpiegitu-

rena da. Beasain-Durango ardatza Zumarragaraino heldua egon beharko litzateke eta lastima da aurrera atera ez izana. Aldundiak bere inbertsioak beste leku batzuetara bideratu ditu, baina nik uste Beasain-Durango ardatza gure herrialdea artikulatzen duena dela eta jadanik amaiturik behar lukeela. Egun inguru hau estatuko altzairuaren gune nagusia da: Ucinen E. Orbegozo planta altzairua pibotatu behar duena izan behar da eta Azpeitia, Azkoitia, GSB eta Aristrain ondoan ditugu. Etorkizuna opa-roa izan daiteke, baina horretarako garraiobide egokiak beharrezkoak ditugu. Beasain-Durango errepidea garatu ez izana kaltegarria da herrialdea horizontalki koordinatzen baitu. Ibilbide honetan dauden herrietan krisi egoeretan arriskatu eta aurrera atera diren enpresak daude: Lankide Aurrezkia, esateko, krisi egoeretan Euskal Herriko zutabetako bat izan da eta bere irabaziaz sakrifikatu ditu enplegu ona emanaz. Beharrezkoa da altzairuak eta kooperatibek, Europa mailan lehiakorrak direla erakutsi dutenez, azpiegitura egokiak izatea.

**-Zeintzuk izan dira lau urte hauetako momenturik onenak eta gogorrenak?**

Esperientzia onena herritarrekin izan dudana harremana izan da. Herritarrek ez dute nirekin egoteko txanda eskatu behar izan eta nire bulegoan ahalik eta

denbora gehien egoten saiatu naiz. Okerrena batzuetan herritarren beharrei nahi nuen bezain egoki erantzun ez izana izan da. Denok ditugu akatsak eta noizbait hanka sartu dudala argi dut.

#### **-Aurrera atera ezin izan duzun asmoren bat ba al dago?**

Udaletxean sartu ginen momentuan bagenekien egoera ekonomikoa txarra zela eta aurrera egiten saiatu ginen. Ez genuen atzera begiratu, iragana kritikatzera batzuetan ez baita eraikitzailea. Bagenekien inbertsioetarako gaitasun propiorik ez genuela eta besteen errekurtsoetara jo beharra genuela. Nik uste kanpotik asko lagundu digutela etorkizuneko Zumarraga erakitzen. Niri egitea gustatuko litzaidakeen gauza batzuk badaude, baina ez dut hurrengo korporazioaren lana izango den lanean sartu nahi.

### **EA-EAJ batasuna: "Nire ustez politikan bat eta bat ez dira bi eta hau ekainean ikusiko dugu".**

#### **-Zeintzuk dira egungo Zumarragaren beharrak zure ustez?**

Hezkuntza kalitatea hobetu eta zolu industrialak sortzea. Zumarragako herritarren bizi kalitatea nire ustez egokia da, honen frogak kanpotik jende asko bertara hurbiltzen ari dela da, osasun hornidura eta zerbitzu onak baititugu. Zinea ere 2.000 edo 2.001 urterako zabalik izatea espero dut. Kanpotik datorren jende hau, asko gutxiengo etnikoetako partaideak, onartu behar dugu. Oso zaila da eurek gure ohiturak bereganatzea euren ohiturak baitituzte.

#### **-Zer eskatuko zenioke alkate berriari?**

Udala herritarrekin harreman zabala eta irekia izaten saiatu behar da eta orduan ziur ondo lan egingo duela. Ziur naiz gainera hala egingo dutela.

#### **- EA-EAJ batasuna dela eta, galtzearen beldur zarelako ez omen zara hauteskundeetara aurkeztuko...**

Hauteskundearen emaitzek erakutsiko digute ondorioa, nire ustez politikan bat eta bat ez dira bi eta hau ekainean ikusiko dugu. Bestalde, udal hauteskundeetan pertsonari eta lanari botua ematen zaie gehienbat. Nire bizitzako zortzi urte bere osotasunean politikari eskeini dizkiot eta nire den-

bora politikoa agorturik dago. Etorkizun profesionala zaindu beharra dut: profesio liberala dudanez, ez nago inongo enpresarekin lotua eta nire etorkizuna dantzan dago. Gainera politikaz ezin da bizi, niretzat ez da lanbide bat.

#### **-Zer egin behar duzu aurrerantzean?**

Arkitektu tekniko aparejadorea naiz eta estudio bat dudanez, bezeroak lortzen saiatu beharko dut. Haseran gogorra izan daiteke eta hilabete batzuetan birziklapen lana burutu beharko dut, baina ez naiz egoera berriaren beldur. Gainera, hemendik urte batzuetara politikara itzultzeko aukera ez dut baztertzen.

#### **-Nola ikusten duzu Euskal Herriaren egoera?**

Nik uste bakea herri honen inbertsio onena dela eta lehenbailehen iristea beharrezkoa dugula. Bakea denon artean lortu beharra dugu eta asko hitz egin eta negoziatu beharko dugu. Herri honen hobekuntza bide honetatik etorriko da. Ezin da egunero komunikabideetan egon, ezkutuko lana egin beharra dago, zuhurtziaz jokatu behar da.

#### **-Zer iruditzen zaizu Zintzo-Mintzoren lana?**

Lan egokia egiten ari dela iruditzen zait, baina gauza batzu beste era batean landu behar direla iruditzen zait. Gizarte plurala gara eta bere lana pixka bat gehiago zabaldu beharra du. Bestalde, nire ustez bere lanean Urretxu Zumarraga baino aintzakotzagotzat hartzen du. Argi dago Zintzo-Mintzoren lana bultzatu beharra dagoela.

#### **Udaletxean alderdi bakoitzak izan duen bozeramalearen balorazioa:**

-Jose Luis Agirre: Etika oso indartsua duen pertsona.

-Jesús Iturbe: Udaletxea oso ondo ezaugutzen duen pertsona eta herriaren onerako lan egiten duena.

-Josean Alustiza: Oso pertsona eta lan gile ona, ideiak argi dituena.

-Valeriano Martínez: Laguntza eskatu zaien bakoitzean erantzun du.

-Martín Otxoa: Zuzenbidean lizentziatua da eta prozesu administratibo oso ondo ezaugutzen du. Oso elementu ona da.

### **MASTER HEZKOR**

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31  
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

# UROLA

## ELEKTRATRESNAK

☎ 943 02 15

Faxa: 943 72 52 91

S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6

☎ 72 52 22

ZUMARRAGA



### GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU

# J. Apaolaza maiatzetik aurrera *Ertzainak* serie berrian ikusiko dugu

la urtero bezala Joseba Apaolaza urretxuarra herrian izan dugu Antzerki Astean parte hartzen. Iaz "Shakespeare osoa" lanean ikusi genuen eta aurten berriz arrakasta itzela izaten ari den Tanttaka taldearen *Dakota* antzezlanaren euskarazko bertsioan. *Dakota* k aurtengo Antzerki Asteari amaiera eman zion joan zen igandean lepo zegoen Pagoeta antzokian. Josebari ez zaio lanik falta antzerki munduan eta maiatzetik aurrera *Ertzainak* izeneko telesailan ere ikusi ahal izango dugu ETB1ean.

## Nolatan sartu zinen antzerki munduan?

Ez dut esango bokazio handiarekin hasi nintzenik. Nik magisteritza egin nuen eta despedidako antzerkitxo bat antolatu genuen. Gustua hartu nion eta eskola batean lanean hasi nintzenerako "harra" sartua nuen. Orain antzerki taldean afizionatu mailan nengibilen eta irakaskun-tzan lau urte eman ondoren antzerkira soilik dedikatzea erabaki nuen. Profesional moduan 23 urterekin hasi nintzen.

## Zeintzuk dira *Ertzainak* serie berriaren nondik norakoak?

Protagonistak Joxe Ramon Soroz eta ni gara eta asteen bost egunetan lanean buru belarri gabiltza. Ikertzaile lana egiten dugun bikote bat gara Joxe Ramon eta biok, baina telesailak komisaldegibarruko bizimodua ere kontatzen du. Beti dago hasieran aurkezten den trama nagusi bat eta hori argitzeko gure ahaleginak. Trama nagusiaz gain trama sekundarioak ere badaude: *Ertzainak* arteko harreman pertsonalak, protagonisten bizitza pertsonala... Oraingoz 55 minututako 13 kapitulu grabatu behar dira, kanpoan zein barruan. Dekoratuak Miramonen daude eta esterioreak gehienbat Bergaran

## Ibilbidea

**Antzerkian:** Orain antzerki taldean aritua - Madrideko José Carlos Plazarekin "Divinas palabras" antzezlanarekin - Concha Velasco protagonista zuten "Carmen, Carmen" komedia musikala -Karraka taldearekin "Moliere" - Aldundiak Arteszena sortu zuten eta "La cacatúa verde" eta "Mephisto" lanetan parte hartu zuten. - Azken urte hauetan "Tanttakarekin" ibili da "Adaggio Violentissimo", "Shakespeare osoa", "Dakota"... lanetan.

**Zinean:** "100 metro", "Lauaxeta", "Ander eta Yul", "Hotel y domicilio", "Malena es un nombre de tango", "Días contados"... filmetan parte hartu du. - Oraindik estreinatu ez den "Sí, quiero" filmean protagonista da.

**Telebistan:** Euskal Herrian egin diren ekoizpen gehienetan lan egin du: A ze pareta, Bi eta bat, Jaun eta jabe... Orain, berriz, *Ertzainak* grabatzen ari da.

grabatu ditugu. Serie berria maiatzaren hasieratik aurrera izango da ikusgai ETB1ean.


tzeko aukera izan dut, baina *Ertzainak* telesailaren grabaketa hasi zenean utzi behar izan nuen. Ekainetik aurrera telesail berriaren grabaketa bukatu eta lan gehiago ateratzen bada, *Shakespeare osoa* eta *Dakota* rekin jarraituko dut.

## Zein da antzele bezala duzun ametsa edo ilusioa?

Ez dakit, gustatuko litzaidake gutxienez martxa honetan jarraitzea. Orain arte zortea izan dut, ez dut lan faltarik izan eta Euskal Herrian egin diren lan nagusienetan parte hartzeko aukera izan dut. Tanttaka oso momentu ona bizitzen ari da eta badirudi antzerki mailan heldutasun batetara iritsi garela, lanak esportatzen ere ari baikara. Lanik gehien antzerkian egin dut eta bertan somatzen dut nire heldutasunik nabarmenena.

## Nola ikusten duzu euskal antzerkiaren egoera?

Lan dexente esportatzen ari gara, *Florida pensil* ek lan asko egin du Madrilan eta hau oso erakusleihen ona da. Honek beste aukera batzuk sor ditzake, lanak lana baitakar beti. Zenbat eta lan hobeak egin orduan eta aukera gehiago izango ditugu beste esparru batzuk jorra-



Pagoeta Antzokian *Dakota* lanaren antzezpena hasi aurretik.

## *Dakota* antzezlanarekin eta *Ertzainak* telesailaz gain, etorkizunerako beste lanik al duzu?

Ez, oraingoz telesaila eta antzezlanarekin jarraituko dut eta beste lanik aterako balitz aztertu egin beharko nuke. Tarteka *Shakespeare osoa* ere antzezten ari naiz eta Valencia aldean 3 aste lanean ari-



Joseba Apaolaza, Amaia bere emaztearekin, "Sí quiero" filmaren grabaketan.

tzeko.

**Nola ikusten duzu herria?**

Egia esan kanpotik bizi izaten dut. Urtero gustatzen zait Antzerki Astera etortzea, baina aurten telesaila grabatzen burubelarri harrapatu nau eta ezin izan naiz etorri. Herrian oso serio lana egiten ari den jendea dago eta zaletasuna sortzen ari da. Irrikia eta prestaketa duen jendea osatzen ari da herrian. Orain falta zaiguna antzerki egokia izatea da.

**Orain arte egin dituzun lanetatik, zeinetan aritu zara gustuen?**

Akaso duen zabaltasunagatik "Dakota" da nik izan dudana desafiari inportanteena. Baita euskaraz delako ere eta letra askoko komedia delako. Bai honek eta baita *Shakespeare osoa* k ere disfrutatzeko aukera handia eman didate.

**Antzezlanean hainbeste urte eman ondoren, zer kontaturik izango duzu...**

Bereziki gogoratzen dut *Divinas palabras* egin nuenean zakur batek nirekin ibili behar zuela antzezpenean, hau dela eta, zakurtegitik bat hartu eta gira osoan zehar nirekin ibili zen izan zituen txakurkumeekin batera. Bestalde, emanaldia zuzen ateratzen ez direnekoak dira gehien gogoratzen dituzunak. Iaz Urretxun bertan *Shakespeare osoa* antzeztzen ari ginela argia joan zen eta hementxe ibili ginen komunera bueltara eta jendearekin hitz egiten. Antzeztan honetan

arazo dexente izan ditugu eta guk farre egiten dugu. Izan ere ingeles antzerki tradizioan "Macbeth" antzeztana aipatzea antzeztan honetatik kanpo zorte txarrekoa omen da eta guk honekin jokatzeko dugunez, honi atxeki izan diogu gure zorte txarraren errua. Antzeztan munduan horiak zentzu ezkorra du Moliere kolore honetako jantziekin hil baitzen antzeztan ari zela. *Moliere* antzeztan ibili ginenean tarteka kolore honetako jantziekin ateratzen ginen eta orduan ere zorte txar dexente izan genuen eta nik neuk txorkatila bihurritu nuen.

**Bukatzeko, gustuko filma, antzeztan, telesail, antzeztaleak...**

Niri *Dersu Uzala* k inpresio handia sortu zidan, batez ere protagonistak igortzen zuen errealismoagatik. Ez zirudien interpretatzen ari zenik. Woody Allenen zinea asko gustatzen zait, nahiz eta *Celebrities* ez zaidan hainbeste gustatu, Ridley Scott... Antzeztlanei dagokienez azken urteotan ez dut gehiegi ikusterik izan lana dela eta, Bartzelonan antzerkiarekin hainbesteko zerikusirik ez duen lan bitxi bat ikusi nuen dena den: Seat Toledo berriaren iragarkian parte hartzen dutenen erritmoan oinarrituta dagoen muntaia ikusgarria. Ez naiz oso telebista zalea. Hala ere *Doctor en Alaska*, *Cheers*, *Periodistas* bera... serie onak iruditzen zaizkit. Aktoreei dagokienez, Federico Luppi oso ona iruditzen zait, baita Alex de la Iglesia zine "gamberroa" ere, Enrique Urbizu...

CHIARA

**Etxerako lentzeria  
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18  
**Madaia plazoletan**  
20700 URRETXU


ZAPATAK



**Otik 40 zenbakiraino**  
Eliz-kale, 7 ☎ 943 72 54 39  
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Labeaga 31 ☎ 943722780  
URRETXU



Legazpi, 5 ☎ 72 11 55  
Zumarraga  
Labeaga, 43 ☎ 72 16 81  
Urretxu  
Kale nagusia, 5 ☎ 73 04 19  
Legazpi

\* ZURE ESTUDIOA \*

GOSARIETAN BEREZITASUNA  
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU




**OSINALDE**  
KRUASANDEGIA  
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943720306  
ZUMARRAGA

**Sasieta Mankomunitateko sentsibilizazio kanpaina**

Edukiontzia horiek eta Legazpiko sailkapen plantak lehenbiziko urtea bete dute. Epe honetan 228 edukiontzia jarri dira mankomunitateko 22 herrietan. Honek 288 biztanleko edukiontzia bat dagoela esan nahi du, ratio hau European dagoen onenatarikoa delarik. Goierrri eta Urola Garaia bilketa hau izan zuten Euskal Autonomia Elkarteke lehen eskualdeak izan ziren. Edukiontzia horietan jasotzen diren materialak sailkatzeko Gipuzkoan dagoen planta bakarra Legazpin dago eta zabaldu zenetik Gipuzkoa guztiko 4.000.000 ontzi sailkatu dira bertan. Iazko ekainetik aurtengo martxora 223tn. bildu dira edukiontzia horietan, Sasieta bizen bakoitzeko 4,5 kg. berreskuratu dira beraz.



Otsaitetik aurrera emaitza onenak ematen direnez, Sasieta udeberrira aukeratu dute kanpaina berriari ekiteko. Helburua bilketa berria erabat sendotzea eta emaitzak hobetzea izango da. Kanpaina apirilaren 17an hasi zen eta 4 atal ezberdin izango ditu. Kale antzerki antzeppen bitxien bidez bilketa

berria hobeto ezagutarazi nahi da eta bertan parte hartzen duten herritarrei oparitxo bat emango zaie. Antzeppenak herrietako jaietan, azoka egunetan... izango dira eta Behi Bi's talde goierritarrek burutuko ditu. Urretxun lehen antzeppena apirilaren 24an izan zen, baina maiatzaren 8an liburu azokan eta 15ean Eitzako jaietan, ekainaren 23an eta uztailaren 9an Geltokiko jaietan ere Urretxun eta Zumarragan izango ditugu.

Kanpainaren bigarren ardatza Legazpiko Sailkapen Plantara eta Sasieta Zabortegira antolatuko diren bisitaldi gidatuak izango dira. Bisitak prestatzeko herri bakoitzeko talde antolatuekin harremanetan jarriko dira Sasieta eta mankomunitateak autobusa eta gidariak jarriko ditu. Bertan materialen sailkapena eta birziklaketa nola burutzen diren erakutsiko da.

Ekaina aldera gida berri bat zabalduko da mankomunitateko etxeetan eta hemen bilketen ezaugarriak eta gorabeherak adieraziko dira. Bestalde, urtero bezala, eskolarteko lehiaketetako sariak ere maiatzean banatuko dira.

Ekintza hauetan guztietan parte hartzen duen jendearentzat opari bat prestatu dute: birziklatutako plastikoz eginiko edukiontzia formako arkatxontzi bat.

**Zintzo-Mintzoren Euskara Txukuntzen ikastaroa**

Antolatzailea Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteke kultura taldea izan da, ikastaroa lau egunetan luzatu da, guztira zortzi ordu iraun du eta irakaslea Maizpide euskaltegiko Antton Idiakez izan da. Antolatzaileen esanetan oso harrera ona izan du: 43 pertsonak parte hartu dute eta iaz lehenengoz antolatu ziren hizkuntza jardunaldiek baino harrera hobea izan du. Ikastaroan batez ere gauza praktikoak irakatsi dira eta bertara hurbildu diren gehienak irakasleak izan dira. Ikastarora hurbiltzeko aukerarik izan ez duenak, Urola Telebistan jarraitzeko aukera izango du, hurrengo asteetan bere osotasunean eskeininok baita.



**EHren euskara jardunaldiak**

Urretxu-Zumarragako EHren euskara jardunaldiak apirilaren 16an izan ziren Legazpi dorretxean. Hitzlariak Jesus Mari Urbegain, Ainhoa Osinalde eta Xanti Val izan ziren. Lehen zatian hitzarmen nazionalerako lau zutabeak, egungo marko juridiko politikoa mugak eta hitzarmen nazionalerako proposamena aztertu ziren. Ondoren Urretxu-Zumarragako Euskera plangintza izan zen eztabaidagai eta bertara hurbildutakoek euren ikuspuntua azaltzeko aukera izan zuten.



**EA-EAJ koalizioaren aurkezpena**

Urretxu eta Zumarragako EA eta EAJ alderdiek ekaineko udal hauteskundeetarako euren hautagaiak aurkeztu zituzten apirilaren 21ean "Zurekin bateginik" lelopean. Zumarragako alkategaia Aitor Gabilondo abokatua izango da. Aitorrek 31 urte ditu eta aski ezauna da herrian urteetan zehar herriarteke pilota txapelketan Zumarragako taldearekin jokatu eta profesionaletan ere aritu baita. Urretxuko hautagaia azken lau urteotan alkate izan den Pello González da. Biek ere alderdiek eginiko apostuaren garrantzia azpimarratu zuten eta herriaren alde lan egiteko konpromezua erakutsi zuten.

**Elizbarrutiko misioen erakusketa**

Astelehenetik ikusgai izan dugu erakusketa hau Itarte etxean. Goizetan eskoletako haurrak joan dira eta Ruanda, Angola eta Ecuadorreko haurrak nola bizi diren ikusteko aukera izan dute bideo, ipui eta herrialde hauetako haurrek euren eguneroko bizitzan erabiltzen dituzten tresnen bidez. Bertara hurbildu nahi denak larunbaterarte izango du zabalik eta herri hauetako produktuak erosteko aukera ere bada.





# Estatuko selekzioen arteko areto futbol txapelketa

Asteburu honetan Gipuzkoako 5 herritan estatuko selekzioen arteko areto futbol txapelketa jokatzeko ari da. Bertan 7 autonomia elkartetako selekzioak parte hartzen ari dira, Euskadi barne, eta guztira 23 talde ekarri dituzte lau mailatan banatuak: emakume zein gizonezkoen senior eta jubenil mailak. Txapelketa honen antolatzailea Gipuzkoako federazioa da eta dirulaguntzak Aldundiak eta partidak jokatu diren herrietako udalek eskeini dituzte. Emakumezko jubenil mailako partidak Urretxu eta Zumarragako polikiroldegietan jokatu dira. Final guztiak, berriz, Urretxuko Aldiri kiroldegian izango dira.

7 federazioetako taldeek bakarrik parte hartzearen arrazoia areto futbolaren estatu mailako antolaketa berezia da. Estatu mailan ez dago federaziorik eta areto futbola futbol federazioaren barne dago. Izan ere estatuko futbol federazioak ez du areto futbola galdu nahi, Ohorezko Maila eta nazioarteko txapelketak diru iturri garrantzitsua baitira berarentzat. Zenbait Autonomi erkidegotan, ordea, areto futbol eta futbol federazioak banandurik daude. Hauek dira Gipuzkoan ospatzen ari den txapelketa honetan parte hartzen ari direnak.


Goierrri K.E.ko areto futbol sailaren

arduradunen esanetan Euskadiko federazioak borondatea erakutsi eta lan egingo balu Euskadiko selekzioak nazioarteko txapelketa ofizialak jokatzeko lor lezake. Izan ere, estatuko federaziorik ez dagoen beste kirol-tan ere Euskadiko selekzioek aukera hau baitute: Samboa eta surfa lekuko.

Asteburu honetan jokatzeko ari den txapelketa Goierrri K.E.ko areto futbol sailaren hamargarren urteurrenarekin batera heldu da. Urretxuko taldearen arduradunak oso gustura daude orainarte eginitako lanarekin eta irailerako duela hamar urte jokatzeko hasi zirenen eta inguruotako jokalariez osatutako talde baten arteko partida jokatzeko asmoa dute urteurrena ospatzeko. Urte hauetan guztietan, Goierrrikoen ustez, taldeak hiritik herrietatik pasa dira. Lehen talde gehienak

Donostian zeuden eta orain herri gehientsuenek euren areto futbol taldea dute.

Egun Goierrri K.E.ak 5 talde ditu eta arazo nagusia hainbeste talde aurrera ateratzeko lanerako jende beharra omen da. Talde nagusiak gizonezkoen Euskal Ligan eta emakumezkoen Liga Nazionala jokatzeko ari dira. Azken hau estatu mailako bigarren liga nagusia da eta maila honetan lehen urtea izan arren, sailkapeneko laugarren tokian daude. Goierrrikoak oso pozik daude kirolak gaur egun Urretxu eta Zumarragan duen egoeraz. Euren esanetan sekula ez da izan hainbeste gazte kirol taldeetan parte hartzen.




## FINALAK

URRETXUKO ALDIRI KIROLDEGIA	MAIATZAK 2, IGANDEA
GIZONEZKOEN SENIOR MAILA	12:30
EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA	11:00
GIZONEZKOEN JUBENIL MAILA	9:30




INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxe: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



**RENEDO argazkiak**

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak  
Labeaga 52-54 F URRETXU  
☎ 725682 722292



**MAPFRE**

**Aseguru etxea**

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA  
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**ARBUPE  
TABERNA**


Euskadi Enparantza, 5  
☎ 943 43 19  
ZUMARRAGA



Labeaga, 2 URRETXU ☎ 943 724482

**PLAZAOLA  
ITURGINTZA**

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 13 70



## Anselmo Portillo Tabernaria

**✓Zer izan nahi zenuen umetan?**

Bizitzan aurrera egitearekin nahikoa nuen.

**✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?**

Beroa.

**✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**

Mendian ibili eta familiaz gozatu.

**✓Zer opari hartuko zenuke gustura?**

Aurki jasoko dudana: biloba eta mutila gainera.

**✓Nor gustatuko litzazuke ezagutzea?**

Berarekin harreman ona izango dudan edonor.

**✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?**

Orain arte tabernan egoteko.

**✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?**

Gustura sentitzen naiz nagoen bezala.

**✓Nora begiratzen diozu lehenik neska bati?**

Ipurdira.

**✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?**

Zumarragari zinea eta Urretxuri Eitza.

**✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?**

Antio.

**✓Zumarragan izan ezik non biziko zinateke gustura?**

Eitzan.

**✓Zein da duzun ohiturarik okerrena?**

Beharbada pixka bat astakirtena izatea.

**✓Bete gabeko amets bat?**

Seme bat izatea, bost alaba baititut.

**✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?**

Oso musikazalea ez naizen arren, bat batean altu jarri eta tabernan daudenei sustua emateko.

**✓Kantu bat.**

Ez dut kantu bat bereziki atsegin.

**✓Zain egon ala besteak zure zain?**

Ez bata eta ez bestea, baina zain egotea gutxiago oraindik.

**✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?**

Zintzotasuna eta lehen hitzak zuen garrantzia.

**✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?**

Emaztea eta alabengatik.

**✓Gaua ala eguna?**

Goizaldea.

**✓Lo egiteko zer?**

Edozein ordu da ona lo egiteko, ez da beste ezer behar.

**✓Gustuko janari bat?**


Janari guztiak ditut gustuko.

**✓Ura, ala...**

Ardo beltza, ura aurpegia garbitzeko justu-juxtu.

**✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?**

Esan dudan guztia egiten saiatu naiz beti.



# URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOIA



Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

# PUBLIZTATEA

☎ 72 57 75

# Ontziak Sailkatzeko Instalazioa



SASIETA  
MANKOMUNITATEA



ONTZI  
BILKETA

Hemen **ONTZIAK** bakarrik  
Aqui **ENVASES** solamente



ERRAZTIRAZKOAK  
de plastiko

METALAZKOAK  
de metal

TETRAEDRIKAK  
Tetra Pak



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Elkarretan da Euzko Foruak, Gipuzkoak eta  
Euzko Foruak de Nafarroa eta Zuberoa

Lehendabiziko  
urtean 4 milioi ontzi  
berreskuratu ditugu.

*Zorionak!*

Jarraitu  
horrela  
Goierri eta  
Urola Garaia

**IKER**

**SUKALDE  
ERAKUSKETA**

**Udala Enparantza, z/g  
Tel: 943 79 00 43  
20500 ARRASATE**

**FAGOR**



**Ipeñarrieta,5**

**Tel: 943 72 50 75  
20700 URRETUXU**